

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2018ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan

2017ko abenduaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2018ko urtarrilaren 22ko ALHAOn —9. zk.— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke www.vitoria-gasteiz.org baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, diru-laguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2018ko urriaren 26ko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizen lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2018ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, herritarrek jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Diru-laguntzen ildoak

Eskualdeko VI. Enplegu Planaren barruko lan-kontrataziorako laguntzak, 2018.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Gasteizko udalerrian ohiko lan-merkatuko lanaldi osoko nahiz partzialeko kontratazioa sustatu eta erraztera zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek —norgehiagoka baliatuko da horretarako—.

Gasteizko udalerrian lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, langabeak eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda daudenei zuzenduta daude laguntzak.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa edo pertsona onuradunen betekizunak, eta kontratatzen diren pertsonenak

— Baldintza hauek betetzen dituzten enpresa edo entitateek jaso ahal izango dituzte programa honetako diru-laguntzak, edozein delarik ere beren forma juridikoa:

1. Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Gasteizko udalerriko lantoki batean.

2. Zerga eta lan betebeharrak egunean izatea, bai eta Gasteizko Udalari dagozkionak ere. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, diru-laguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori —diru-laguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

3. Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko auke-ratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

4. Beste diru-laguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeko, Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2017ko deialdian.

5. Enpresa onuradunek laguntza programa honetan parte hartzen duten denbora osoan bete beharko dira baldintza horiek.

— Kontratatuko direnek baldintza hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

1. Diru-laguntzaren xede den pertsona kontratatu aurreko sei hilabeteetan gutxienez Gasteizko udalerrian erroldatuta egon izana, eta laguntza eman arte erroldatuta jarraitzea.

2. Langabezian egotea, hau da, kontratatu aurretik Gizarte Segurantzaren inongo erregimenean izena emanda ez egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaileraren izena emanda egotea, kontratazio-egunaren aurre-aurreko egunean.

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

— Lan-kontratazioa egitea, oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betez.

— Kontratazioek enplegu sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaientzat pertsonak bertaratu aurreko hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean —diru-laguntzak hartzen duen aldiaren enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—.

— Kontratuek gutxienez sei (6) hilabeteko iraupena izan beharko dute, eta lanaldi osoa edo gutxienez ehuneko 50eko lanaldi partziala, eta edozein kontratu-mota erabili ahal izango da, prestakuntza- eta ikasketa-kontratuak izan ezik.

— Diru-laguntzaren iraupena gutxienez sei (6) hilabetekoa izango da, kontratu bakoitzeko.

— 2018ko ekainaren 21etik 2018ko azaroaren 30era bitartean egindako kontratuak lagundu ahal izango dira. Nolanahi ere, kontratazioak diruz laguntzeko den epea baino luzeagoak izan daitezke, baina halakoetan ez da diru-laguntzarik jasoko geroko epe horri dagozkion kostuengatik.

— Laguntzen kopurua mugatua izango da: hiru (3) enpresa bakoitzeko; gizarteratze enpresek lau (4) kontratu ere egin halako dute.

— Kasuan kasu galdatu edo diruz lagundutako gutxienerako aldia burutu aurretik iraungitzen badira lan-kontratuak, itzuli egin beharko da emandako diru-laguntza, salbu eta iraungitze hori enpresa kontratazioaren borondatez egokitu ez bada, eta hala egiaztatzen bada, behar diren agiriak aurkeztuta, hamar eguneko epean, kontratuari Gizarte Segurantzaren baja ematen zaion egunetik. Halakoetan, kontratuaren benetako iraupenaren arabera murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa. Horretaz gain, enpresaren borondatez egokitu ez den baja justifikatu ondoren — 15 egun baliorduneko epean, hura gertatu zenetik—, gelditzen den diruz lagundutako aldirako beste lan-kontratu bat formalizatzen bada —deialdiko baldintzak eta diru-laguntza eman zeneko hasierako kontratuaren ezaugarriak errespetatuz—, izenpetutako lehen eta bigarren kontratuen iraupenaren arabera izango da diru-laguntzaren murrizketa. Delako bigarren kontratua behar baino lehenago iraungiz gero, ez da onartuko emandako diru-laguntza gerora izenpetzen diren hirugarren edo hurrengo kontratuei aplikatzea.

— Pertsona bat kontratatzeagatik diru-laguntza bakarra emango da, eskabidea enpresa edo autonomo ezberdinek egiten badute ere; alegia, diru-laguntza bakarra emango da, eta lehenagotik emandakoa.

— Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu sustapenerako tokiko ekintzetarako laguntza-deialdian adierazten diren betebeharrak betetze aldera, kontratazio jakin batzuk lehenetsiko dira, halako moduan non diruz laguntzen diren kontratu guztien artetik gutxienez ehuneko 40 emakumeei eginak izan beharko baitira, eta ehuneko 15, aldiz, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 55 urtetik gorako langabeei eginak.

5. oinarria. Ez da diru-laguntzarik emango

– Enpresaren titulartasunaren ondorengotzatik edo forma juridikoaren aldaketatik sortzen diren hasierako kontratazioetarako.

– Enpresaburuaren ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailara arteko — hori barne — odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideak kontratatzeke, edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz administrazio-organoetako kide direnak kontratatzeke, baldin eta enpresaren forma juridikoa sozietatea bada.

– Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsoneri dagozkien kontratazioak.

– Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan enpresa berean zerbitzuak eskaini dituzten pertsoneri egindako aldi baterako kontratuak, edozein izanik ere kontratuaren edo hitzarmenaren izaera.

– Prestakuntza eta ikasketa kontratuak.

– Ez dira kontuan hartuko hiru hilabetetik beherako kontratuak, nahiz eta kontratazioaren iraupen osoa zenbatzeko kontratuen luzapenak onartu, baldin eta hasierako kontratua gutxienez hiru hilabetekoa bada.

Era berean, ezingo dira laguntza hauetaz baliatu:

– Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluko debeku egoeraren batean dauden enpresa edo entitateak.

– Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

– Aldi baterako lanerako enpresak, beste enpresa bati aldi baterako langileak kontratatzeari dagokionez.

– Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko egindako lan-kontratazioak.

– Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginak — urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia — 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

– Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian ezarritako minimis erregimenaren mendeko laguntzak direnez, ezin zaizkie sektore hauetako enpresei eman:

1. Arrantza eta nekazaritza, Kontseiluaren 104/2000 Erregelamenduen (EE) arabera.

2. Tratutuko I. eranskinetako zerrendan agertzen diren nekazaritza-produktuen produkzio primarioa.

3. Beste herrialde batzuetarako edo estatu kideetarako esportazioekin erlazionatutako jarduerak, baldin eta laguntza banaketa-sare bat osatu eta funtzionatzearekin lotuta badago, edo esportazio jarduerarekin lotutako beste esplotazio gastu batzuekin.

4. Ikatza, 1407/2002 zenbakia duen Erregelamenduan (EE) definitutakoaren arabera.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Aurrekontuko zuzkidura milioi bat eta berrogeita hamar mila euro (1.050.000,00 euro) izango da guztira, eta Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren 2018ko ekitaldirako aurrekontuaren 2018/ 0823.2411.48020 aurrekontu-partidaren (“Kontrataziorako laguntzak-VI. Enplegu Plana”) kontura finantzatuko da.

7. oinarria. Eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia indarrean jartzen delarik hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko abenduaren 17an bukatuko.

Enpresa edo pertsona interesdunek eskabidea aurkezten dutelarik, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

8. oinarria. Ebazpena

Gehienez hiru hilabeteko epean emango da ebazpena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatuta.

9. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauen arabera balioetsiko dira diru-laguntza deialdira aurkezten diren kontratuak, puntuaziorik handienetik txikienera arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko:

Balioespen-irizpideak	Puntuazioa
Kontratutako pertsonen ezaugarriak:	
- 55 urtetik gorakoak.	60
- Luzaroko langabeak (kontratatu aurreko 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon direnak, eta gutxienez 360 egunetan langabezian eman dutenak joko dira halakotzat).	50
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile titularrak.	40
- 45 eta 54 urte bitartekoak.	40
- 35 urtetik beherakoak.	20
- Emakumea.	30
- Dibertsitate funtzionala egiaztatuta dutenak.	15
Lanaldi mota:	
- Osoa.	40
- Partziala (ehuneko 75ekoa edo hortik gorakoa).	10
Kontratuaren iraupena:	
- Mugarik gabekoa.	40
- 12 hilabete edo gehiago.	20
Gehieneko puntuazioa	275

10. oinarria. Diru-laguntza kalkulatzea

Gehienez 6.000,00 euroko laguntza emango da sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Lanaldi partzialeko kontratazioak badira, lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera izango da diru-laguntza (laguntzaren gehieneko muga).

Laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 75etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

Talde hauetakoren bateko pertsonak kontratatzen badira:

— Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak.

— 35 urtetik beherakoak

— Luzaroko langabe daudenak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatutako aurreko gutxienez 540 egunetan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egunez lanik gabe egon badira.

— 55 urtetik gorakoak

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 9.000,00 eurokoa izango da, sei hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioa bada,

lanaldiaren edo lanean egindako denboraren arabera izango da diru-laguntza. Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzakoen ehuneko 100etik gorakoa, kontratu-amaierako kalte-ordainak barne.

11. oinarria. Diru-laguntza ordaintzea

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, kontratazioa egin dela eta laguntza emateko eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren; ematera bultzatu duten baldintzak egiaztatzeko bestelako kontrolak ere ezar litezke.

12. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzen Lege Orokorren 14 artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak izango dituzte onuradunak:

1. Laguntza emateko arrazoia izan den jarduera betetzea eta bete dela egiaztatzea, hau da, lan-kontratu bat formalizatzea, eta emateko betekizunak eta baldintzak betetzea.

2. Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

3. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Gasteizko Udalari jakinaraztea.

4. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari zein Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

5. Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten diru-laguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

6. Udal diru-laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo diru-laguntzarik jaso gero, organo emaileari jakinaraztea.

7. Enplegu sorkuntza garbia egiaztatzea, kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratutako hiru hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean —diru-laguntzak hartzen duen aldiaren enpresak duen batez besteko plantilla aintzat harturik—.

8. Jasotako fondo publikoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

13. oinarria. Bestelako laguntza eta diru-laguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak bateraezintasunak izango dira kontzeptu berarengatik eta helburu berarekin beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek ematen dituzten diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hoberiak salbu.

14. oinarria. Nahitaezko agiriak

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

— Eskabide-orria, eta zinpeko aitortpena, oinarri hauen I. eta II. eranskinetan ageri den ereduaren arabera —atal guztiak bete beharko dira, nahitaez—.

— Aldeek sinatutako lan-kontratuaren kopia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.

Eskabideak balioetsi eta diruz laguntzen den aldia bukatu ondoren —hala galdatzen delarik— aurkeztu beharreko justifikazio-agiriak. Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea —Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 16an onetsi zuena— aplikatuz, justifikazio-agiriak paper ehuneko 100 birziklatuan aurkeztea gomendatzen da (kontsumitu ondoko edukia gutxienez ehuneko 65ekoa), bi aldeetatik eta zuri-beltzean

inprimatuta (kolorea ezinbestekoa denean bakarrik erabiliko da); koadernatzea ahalik eta urriena izango da, plastikozko azalik gabea, errazago birziklatzeko.

– Entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

1. IFZ edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFK.
2. Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena.
3. Legezko ordezkariaren NANaren fotokopia.
4. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiria (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).
5. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 3 hila-beteetako batez besteko plantillari buruzkoa.
6. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, diruz lagundutako kontratazio-aldiko batez besteko plantillari buruzkoa.
7. Kontratazioaren bukaerako oroitidazkia, non soldata-kostua adierazi beharko baita, diruz lagundutako aldiari guztira ordaindua, kalte-ordaina — beharrezkoa bada— eta enpresaren Gizarte Segurantzako kostua bereizita.

– Kontratutako pertsona egiaztatzeko agiriak:

1. Kontratutako pertsonaren NAN edo IFZ.
2. Errolda ziurtagiri historikoa
3. Kontratutako pertsonaren lan-bizitzaren txostena, kontratazioa egin denez geroztiko datarekin.
4. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egondako aldien ziurtagiria, kontratua hasi aurreko azken 18 hilabeteetako.
5. Kontratua talde berezietakoren batekoa izanez gero, hori egiaztatzeko behar diren agiriak.

– Kontratua egiaztatzeko agiriak:

1. Diruz lagundutako aldiari dagozkion nominak, behar bezala sinatuta, eta ordainketa-egiaztariak.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunea egongo da eskuragarri www.vitoria-gasteiz.org baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoa aplikagarri izango da.

Bide hauek baliatu ahal izango dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Dokumentazioa euskarri digitalean aurkeztea: proiektu teknikoak eta gainerako agiriak euskarri digitalean aurkeztu ahal izango dira, formatu hauetan: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek pdf formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpeterik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko aitortpena erantsi beharko zaio — Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz—. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

– Dokumentazioa paperean aurkeztea: paperean aurkezten den dokumentazioak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko du, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko lana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili

gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarriren batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta, beraz, digitalizatzerik ez badago, karpeta batean aurkeztu beharko da, edukiaren aurkibidearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, non zehazten den zein udal zerbitzuri dagokion deialdiko diru-laguntzen lerroa.

— Egoitza elektronikoaren bitartez: eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoaren bitartez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. helbidean ezarritakoari jarraituz.

15. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

Eskatzaileak bere eskabidean akatsen bat dagoela ikusiz gero, akats hori zuzentzeko eskatu ahalgo dio Gasteizko Udalarri eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik.

16. oinarria. Prozedura

16.1. Prozedura.

Diru-laguntzak emateko elkarren arteko lehiaren prozedura baliatuko da, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Diru-laguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak —9. oinarrian ezarritako balioespen-irizpideak aintzat harturik—, hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera, eta puntuaziorik handienak lortzen dituzten eskabideei esleituko zaizkie diru-laguntzak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua ildotik, lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako itzarote-zerrenda sortuko da, oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete arren —deialdian finkatutako gehienezko kreditua agortu delako— onetsi ez diren eskabideekin. Hartara, soberakin egokitzuz gero —dela enpresa onuradunek diru-laguntzei uko egiten dietelako, dela ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako—, beste deialdirik egin beharrik gabe erabaki ahal izango du organo emaileak itzarote-zerrendako lehenari eta hurrengoari ematea diru-laguntza —puntuazio hurrenkeraren arabera—, libre geratutako kreditua agortu arte.

Deialdirako dagoen kreditua oinarrietan finkatutako betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko aski egokitzuz gero, bazter utziko da horien arteko lehentasun-hurrenkeraren irizpidea, eta guztiak suertatuko dira onuradun.

Oinarrietan eskatutako agiri guztiak eskabideari erantsi zaizkionean ezarriko da lehentasun-hurrenkera.

Berdinketa egokitzuz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, balioesteko atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko, hurrenkera honen arabera:

1. 55 urtetik gorakoak.
2. Luzaroan langabe daudenak.
3. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak.
4. 45 eta 54 urte arteko pertsonentzat.
5. Mugarik gabeko kontratua.
6. Lanaldi osoa.

7. Emakumeak.

8. 35 urtetik beherakoak

9. 12 hilabete edo gehiagoko kontratua.

10. Lanaldi partziala (ehuneko 75ekoa edo hortik gorakoa).

11. Dibertsitate funtzionala egiaztatuta dutenak

Berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideak Gasteizko Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztu zireneko datak eta orduak kontuan izanik.

16.2. Instrukzioa eta ebazpena.

Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Aztertze-, balioztatze-, hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, saileko zuzendariak, Merkataritza Zerbitzuko eta Enpresa Zerbitzuetako buruek eta Prestakuntza eta Enplegu Ataleko eta Ekonomia Sozialaren Ataleko buruek osatua.

Eskabideak jaso eta —betebeharrak betetzen diren egiaztatu ondoren— tramitatzea onartzen delarik, balioespen-txosten teknikoa egingo da, eta, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena egiten diolarik, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak, horretarako eskumena Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eduki beharko dute eskatzaileek tramitazioak iraun bitartean, operatibo, hartara aurkeztzen duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak arin eta eraginkortasunez, modu legalean, ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa izango dira.

Diru-laguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahalko du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Behin aurrekontu-kreditua agortzen denean, eskatzaileei ez zaie eskatuko osorik ez dauden eskabideak zuzentzeko dokumentaziorik.

17. oinarria. Diru-laguntzen berri ematea

Oro har, ematen nahiz ukatzen diren diru-laguntzen zerrenda ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazten direlarik, baita emandako diru-laguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazoia ere.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren diru-laguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

18. oinarria. Diru-laguntzak aldatzea

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berariaz eta alde zurretik. Berariaz baimentzen delarik baino ezingo da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 64. artikuluan xedatzen duenez, "emakida-ebazpena eman ondoren, onuradunak horren edukia aldatzea eska lezake, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako inguruabarrak badaude –legearen 17.3. I artikuluan ezarritakoa betez-, eta baimendu egin ahalko da, beti ere hirugarrenen kaltean ez bada. Jar-duera burutzeko epealdia amaitu bainolehen aurkeztu beharko da aldaketa egiteko eskabidea.

19. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Gasteizko Udalak, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio ekintzak burutu ahal izango ditu, eta eskatzen dien informazio osagarria eman beharko diote enpresa onuradunek.

20. oinarria. Laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Kasu hauetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: pertsona edo entitate onuradunak Udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura ebatzi delarik zordun bada ere.

Laguntza itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena hura eman zuen organoak izango du.

Ofizios nahiz organo eskudunak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio Udalak diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo enpresari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko, egokitzen dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez dituzan, 15 eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko. Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da laguntza jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik.

Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

Itzularazteko prozedura administrazio arau-hauste baten ondorioz abiarazia bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikagarri den prozedura zigortzaileari ekin diezaion.

21. oinarria. Indarrean jartzea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean laguntzak emateko deialdi eta oinarri hauek.

22. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela —Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek—. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urriaren 29an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eta II. eranskinak

LAGUNTZA-ESKABIDEA ETA ZINPEKO AITORPENA

DIRU-LAGUNTZA HONEKIN LOTUTA EGINDAKO KONTRATAZIOAREN EZAUGARRIAK

<http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/87/90/68790.pdf>